

Pandemiagatiko murrizketen ondorioz, ezkontza-kopurua % 79,1 jaitsi da Euskadiko AEn, 2020ko bigarren hiruhilekoan

Apirilean, 14 ezkontza baino ez ziren egon eta maiatzean, 87

Euskadiko AEn, 2020ko bigarren hiruhilekoan, 455 ezkontza-ospakizun egon ziren; alegia, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, % 79,1 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Azken urteotan, bigarren hiruhilekoan 2.000 ezkontza baino gehiago egin izan dira; hala ere, aurten, COVID-19-aren krisia dela eta, ospakizunek erabat egin dute behera, batik bat apirilean eta maiatzean, 14 eta 87 ezkontza baino ez dira egon eta, hurrenez hurren.

Ezkontza-kopuruak hiru lurralde historikoetan egin zuen behera; izan ere, Araban 51 ezkontza baino ez ziren egon (-% 80,5), Gipuzkoan 157 (-% 80,1) eta Bizkaian 225 (-% 78,6). Bestalde, 22 bikote ezkondu Euskadiko AEtik kanpora finkatu zuten bizilekua.

Bikote ezkondu guztietatik, 23 sexu beraren arteko pertsonena izan ziren –8 gizonen artean eta 15 emakumeen artean–, eta beste 432 bikote heterosexualak izan ziren.

2020ko bigarren hiruhilekoan, ia ezkontza guztiak izan ziren zibilak; izan ere, 9 ezkontza kanoniko baino ez ziren egon. Ezkontza zibilen ehunekoa 2019ko aldi berekoa baino ehuneko 7,7 puntu handiagoa izan zen.

2019ko bigarren hiruhilekoko 455 ezkontzetan, Euskadiko AEko 428 gizon eta 445 emakume ezkondu ziren. 340 senarren kasuan (% 79,4), lehen ezkontza izan zen; 6 gizoneko alargun eta 82 gizoneko dibortziatu berriz ere ezkondu ziren. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonena baino baxuagoa izan zen: 346 ezkongabe izan ziren (% 77,8); 6 alargun, eta 93 dibortziatu.

Bikoiztu egin da atzeritarren ezkonberrien ehunekoa

Ezkontideen adinaren arabera banaketa dela eta, senarren % 92,3k eta emazteen % 87,9k 30 urte baino gehiago zituzten. 2019ko aldi berean, senarren % 90,8k eta emazteen % 83,8k.


2020ko apirilean, maiatzean eta ekainean, gizoneko ezkonberrien % 19,2 eta emakumezko ezkonberrien % 25,2 atzeritarrek ziren. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, gizonen artean, ehunekoa areagotu egin da, ehuneko 10,2 puntu handiagoa baita, eta emakumeen artean, 12,9 puntu handiagoa da.

Euskal AEko ezkontzak egoitzako lurralde, sexu, aurreko egoera zibil, eta ospatzeko moduaren arabera (1)

	Oraingo hiruhilekoa 2020/II		Aurreko hiruhilekoa (2020/I)		Aurreko urteko hiruh. bera (2019/II)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	455	100,0	918	100,0	2.173	100,0
Araba/Álava	51	11,2	144	15,7	262	12,1
Bizkaia	225	49,5	413	45,0	1.052	48,4
Gipuzkoa	157	34,5	326	35,5	751	34,6
Euskal AEtik kanpo	22	4,8	35	3,8	108	5,0
<u>Homosexuak</u>	23	5,1	30	3,3	59	2,7
Gizon artean	8	1,8	11	1,2	32	1,5
Emakume artean	15	3,3	19	2,1	27	1,2
<u>Heterosexuak</u>	432	94,9	888	96,7	2.114	97,3
Kanonikoak	9	2,0	24	2,6	258	11,9
Zibilak	423	93,0	864	94,1	1.856	85,4
SENARGIAK	428	100,0	870	100,0	2.067	100,0
Ezkongabeak	340	79,4	685	78,7	1.744	84,4
Alargunak	6	1,4	7	0,8	19	0,9
Dibortziatuak	82	19,2	178	20,5	304	14,7
< 30 urte	33	7,7	85	9,8	190	9,2
30 - 39 urte	148	34,6	326	37,5	996	48,2
≥ 40 urte	247	57,7	459	52,8	881	42,6
Espainiarrak	346	80,8	694	79,8	1.880	91,0
Atzerritarrak	82	19,2	176	20,2	187	9,0
EMAZTEGAIK	445	100,0	890	100,0	2.052	100,0
Ezkongabeak	346	77,8	724	81,3	1.750	85,3
Alargunak	6	1,3	4	0,4	10	0,5
Dibortziatuak	93	20,9	162	18,2	292	14,2
< 30 urte	54	12,1	151	17,4	320	15,5
30 - 39 urte	174	39,1	358	41,1	1.033	50,0
≥ 40 urte	217	48,8	381	43,8	699	33,8
Espainiarrak	333	74,8	626	72,0	1.798	87,0
Atzerritarrak	112	25,2	264	30,3	254	12,3

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira
 Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Euskal AE ezkontzak, hilabeteka



Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62